Lezoko Unibertsitateko Udala

**DIKTAMENA**

**A.O.U. 34 Salva-ko hiri antolaketarako plan berezia.**
**2015H0400002**

Lezoko Udalak D16/331 Alkatetza Dekretuaren bitartez, SALVA INDUSTRIAL S.A. enpresak sustaturiko HIE 34 SALVA eremuko Hirigintza Antolakuntzarako Plan Bereziari haserako onarpena ematea erabaki zuen, dekretuan bertan adierazten diren hainbat baldintzekin

Halaber Plan Berezi hau GAOn argitaratu eta jendaurrean 20 egunez edukitzea erabaki zen.

Akordio horren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2016ko apirilaren 14an, 69 zenbakian. Pentsa idatzian ere (Diario Vasto eta Berrian) argitaratu zen 2016ko apirilaren 13an

Jendaurreko epean ez da alegazio edo erreklamaziorik aurkeztu.

Bestalde 2016ko maiatzaren 17an (1250 erregistro sarrerakin) SALVA INDUSTRIAl, SA-k plan bereziaren haserako onarpenean zehazturiko baldintzak betetzen dituen dokumentu berriaren hiru kopia aurkeztu ditu.

Plan Berezi honek, dokumentazioari dagokionenan, Lurzoruaren eta Hirigintza 2/2006 Legearen 68 artikuluak xedaturikoa betetzen du eta edukiak lege beraren 56 artikuluak xedaturikoa ere betetzen du hirigintza antolaketa xehekatuaren mugak ez dituelako gainditzen.

Hori dela eta 2/2006 Legearen 95 eta 96 artikuluak xedatzen dutena kontuan izanik,

Joan den 2016-05-19an, osteguna, Batzorde informatibo orokorrak aho batez, ondorengoa diktaminatu du osoko bilkurak onar dezan:

**DIKTAMINA**

BAT: HIE 34 SALVA eremuko Hirigintza Antolakuntzarako Plan Bereziari behin betiko onarpena ematea.

BI: Akordio hau eta Plan Bereziaren araudiaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Argitaratzea.

Lezon 2016-05-23

Jesus Maria Martiarena Jaca, Batzorde Informatibo Orokorreko Lehendakaria.